

**Nombre de empresa:**

**PROVA**

**Nombre del servicio:**

**Slogan:**

Tu educación siempre a tu disposición

**Producto:**

Aplicación con contenidos educativos de cada comunidad autónoma

**Nortzuk gara?**

Olabide Ikastolako ekonomia, ekintzailatza eta enpresa jardura ikasgaiko batxiler lehenengo mailako ikasleak gara, Paula Quintana, Aner Mendiguren, Eneko Martinez, Mikel Ortiz eta Olaia Solchaga gara. Ikasgai hau aukeratu dugu hautazko bezala; izan ere, oso interesatuta gaude enpresa eta ekonomia sektoreetan.

**Gure zerbitzuaren deskribapena:**

Guk eskaintzen dugun zerbitzua web bat da, web horretan komunitate autonomo bakoitzeko eskola edo ikastola guztietan erabiltzen diren liburu interaktiboak egongo dira. Honez gain, web honetan, besteen apunteak ikusi ahalko dituzu eta zure apunteak ere publikatu ahal dituzu. Gainera, apunteak publikatzen badituzu eta jende asko zure apunteak ikusten eta erabiltzen baditu dirua ordainduko dizugu.

**Helburua:**

Gure helburua da eskolan liburuak utzi dituzten ikasleek, ikasteko eta ariketak egiteko aukera izatea. Adibidez, ikasle bat bazara eta bihar azterketa bat baduzu, baina azterketako ikasgaiaren liburuak eskolan utzi dituzu, gure web-an Espainiako eskolen liburu guztiak dituzunez, hortik ikasi ahalko duzu eta ikasteko liburuko ariketak egin ahalko dituzu. Beraz, azterketarako ikasi ahalko duzu eta gainditu ahalko duzu. Gainera, gure aplikazioan beste pertsona batzuk argitaratzen dituzten apunteak ikusi ahalko dituzunez, ez dituzu apunte propioak egin behar edo nahi baduzu, zure apunteak publikatu ahal dituzu eta jende asko erabiltzen baditu konpentsatzen dizugu.